






URA ETA BERAREN GESTIOA

Mugak eta kontraesanak



URA ETA BERAREN GESTIOA

Aurkibidea



1. Sarrera	3
2. Arro hidrografikoa gestio unitate gisa	4
3. Uren Legea	4
4. Arazo hidrologikoak eta beraien eskalak	5
5. Udalen eskumenak ur arloan. Udaren zerbitzu hidrikoak	6
6. Uraren gestioari buruzko gogoetak: eztabaidako elementual.	7

Laguntzaile:
EUSKO JAURLARITZA
Ingurugiro Saila

Esku artean duzun argitalpena, ELA sindikatutik 2.000. urtean, ingurugiroaren biran, langileen sentsibilitatea, sustatzeko egiten ari garen kanpainaren barnean kokatzen da.

Mugak eta kontraesanak



1. Sarrera

Errealitatea hortxe dago, gure aurrean. Ezin dugu jarraitu, eta ez dugu jarraitu behar, ura ondasun agortezin bezala tratatzen. Ur eta Ingurugiroari buruzko Nazioarteko Batzarrean -Dublin, 1992- adostutako lehenengo printzipio zuzentzaileak dioenez, "ur geza baliabide mugatua eta babestu beharrekoa da, ezinbestekoa baita biziari, garapenari eta ingurugiroari eusteko".

Baliabide hidrikoak ordenatzeko praktika ez dago oso hedatuta Euskal Herrian. Orain arte pentsatu dugu nahi beste ura genuela eskura, eta horren eraginez gehiago kezkatu gara eskaintza handitzeaz eskaria gestionatzeaz baino. Era horretan, epe ertain eta laburrera datorkigun etorkizunak gure arreta osoa eskatuko du.

Euskal Herrian badira ur-hornidurarekin zuzeneko menpekotasuna duten sektore ekonomiko garrantzitsuak, berme handiko zerbitzua behar dutenak. Horri gehitu behar zaio ur-hartuneak kalitate txarrekoak direla, bai beraien egoera desegokia delako bai instalatutako tratamendu-sistemek ez dutelako uraren edangarritasuna behar bezainbeste bermatzen. Gai kutsagarri gehiegi pilatzeak edo zirkulatzen den uraren bolumena murrizteak modu larrian hondatu ditu gure ibai eta hezeguneak.

Baina, beste alde batetik, gure ekonomiak etengabe jarraitzen du hazten, eta, berarekin batera, produkzio ondasunak sortzeko lasterketa zoroa eta ekonomia eta politika mailan ahalik eta arinen aberasteko nahia ere. Fede onaren barnean, eguneroko erabakiak hartu behar dituztenek sentsibilitate gutxi erakusten dute naturaren balioekin.

"Baliabide hidrikoak ordenatzeko praktika ez dago oso hedatuta Euskal Herrian"

"Oraingoz ez da definitu garapen ekonomiko eta sozialarekin bateragarria den aurrerapenaren paradigma. Ezinbestekoa da jasangarritasun marko berri bat sortzea, geure baliabideen aprobetxamendua eta geure gizartearen bideragarritasuna bermatu ahal izateko"

Oraingoz ez da definitu garapen ekonomiko eta sozialarekin bateragarria den aurrerapenaren paradigma. Ezinbestekoa da jasangarritasun marko berri bat sortzea, geure baliabideen aprobetxamendua eta geure gizartearen bideragarritasuna bermatu ahal izateko, bai belaunaldien arteko ikuspegi etikotik eta bai gutxienezko razionaltasun kolektiboaren ikuspegitik. Balio eskala batzuk ezarri behar ditugu, uraren arazoak konpondu ahal izateko gure naturan eragin nabarmena duten kasuetan. Beharrezkoa da une bateko egoerak eta egoera iraunkorrak elkarretik bereizten ikastea, eta, orobat, atzera eraman daitekeena eta atzera ezin eraman daitekeena, azalekoa eta ezin ukituzkoa, gauzen prezioa eta beraien balioa bereizten jakitea. Ura gure ondarearen baliabide konplexua da, eta, beste balio batzuen artean, eginkizun nabarmenak betetzen ditu naturan.

2. Arro hidrografikoa gestio unitate gisa

Ibaien arro bakoitza gestiorako unitate zatiezintzat hartu behar da. "Baliabide hidraulikoen administrazioa arro naturalen arabera egin behar da, muga politiko eta administrazioen arabera egin beharrean. Azaletik doazen urak aldaparik handienetatik jaisten dira, eta elkartzen direnean ur-korronteak sortzen dituzte. Ibai bat eta bere ibai adarrak adar ugari dituen eta arro (hidrografiko) izeneko lurralde bat estaltzen duen zuhaitz batekin aldera daiteke. Komenigarria da gogoratzea lur gaineko edo lurpeko uren erabilerak elkarren menpekoak direla arro bakoitzaren mugen barruan, eta, hortaz, desiragarria dela beraien administrazioa ere horrelakoa izatea" (Urari buruzko Europako Gutuna).

Gestio unitate horren barruan ez daude eremu hori zeharkatzen duten ubideak soilik, baizik eta baita biziguneak, industriak, nekazaritza-lursailak eta ekosistema naturalak ere.

Horregatik guztiagatik, arroa unitate bezala errespetatzea izan behar da gestioaren oinarritzko printzipioetako bat,

behin-behineko arazoentzat alternatibak dauden bitartean, alternatiba horiek itxuraz garestiagoak izan arren. Urak balio ekonomikoa du bere erabilera guztietan, dela hornidura dela ibai eta lakuen komunitate biologikoak zaintzea. Azken batean, garestiena erabilera-ahalmen horietako bat modu atzeraezinean galtzea izaten da beti.


Arro bakoitzean, uraren arazoaren konponbideak arroaren azpiunitateen barnean bilatu behar dira (hots, "sistema hidrologikoetan"): akuiferoak, deskarga-eremuak, ibaiak, estuarioak eta hezeguneak. Beharrezkoa da lurpeko urak (akuiferoak) integratzea, horniduraren eta baliabidearen erregulazioaren funtsezko atal gisa, lur gaineko urekin hainbesteko menpekotasunik izan gabe.

Egoerak aztertu baino lehen, modu sakonean ezagutu behar ditugu sistema bakoitzaren errealitateak (eskariak, baliabideak eta eskura egon daitezkeen estrategiak), kontzesio zaharkituak beraztertuz, eskariak doituz, gestioa hobetuz, eta ura aurreztuz (oraindik ere erabili ez den tresna bat), birziklatuz eta berriz erabiliz (1). "Kirurgia hidraulikoak (urtegi handiak eta urak ibai batetik bestera eramatea) muturreko konponbideak dira muturreko arazoetarako.

3. Uren Legea

Eginkizun horretan kontuan hartu behar diren puntuen artean Uren Legea dugu. Izan ere, beraren 40. artikulua arroetako Plan Hidrologikoen derrigorrezko edukiak aipatzen ditu:

a) Baliabide hidraulikoen inbentarioa.



(1) Saneamendu planak bukatzen direnean, zirkulatzen den uraren laurdena araztegietatik pasatuko da.

- b)** Orain dauden eta etorkizunean egon daitezkeen erabilerak eta eskariak ezagutzea.
- c)** Lehentasunak ezartzeko eta erabilerak bateragarri bihurtzeko irizpideak, eta lehentasun-ordenak.
- d)** Baliabideak esleitzea eta gordetzea gaurko eta etorkizunerako erabilera eta eskarietarako, baita natura zaintzeko ere.
- e)** Uren kalitatearen oinarritzko ezaugarriak; hondakin-uren isurketak antolatzeko oinarritzko irizpideak.

f) Nekazaritza-lurrak hobetzeko eta ureztatze-sail moduan ustiatzeko funtsezko arauak ematen ditu legeak, eskura dauden baliabide hidrauliko guztien aprobetxamendu egokia bermatzeko.

g) Ura babesteko perimetroak eta baliabide hori zaintzeko eta berreskuratzeko neurriak.

h) Basogintza eta hidrologia arloan eta lurra kontserbatzeko arloan administrazioak egin behar dituen planak.

i) Akuiferoak babesteko eta haien ur-emia bermatzeko orientabideak.

j) Planak eskatzen dituen oinarritzko azpiegiturak.

k) Aprobetxamendu energetikoak eba-luatzeko irizpideak eta aprobetxamendu horiek gauzatzekoan bete behar diren

baldintzak.

l) Uholde, uhar eta bestelako fenomeno hidraulikoek sortizaketen kalteak aldeztatik eragoztera zuzendutako azterlan, ekintza eta obrei buruzko irizpideak.

4. Arazo hidrologikoak eta beraien eskalak

Urarekin zerikusia duten arazoak bi motatakoak direla esan dezakegu: kantitate arazoak eta kalitate arazoak.

Kantitatearen inguruko arazoak aztertzerakoan eta konpon-tzerakoan, beraien eskala erlatiboa hartu behar dugu oinarritzat. Edateko uraren urritasunak sortzen dituen arazoak udal edo eskualde mailako arazoak izan ohi dira, eta eskura dagoen uraren erabilerari ematen zaion lehentasunaren menpe daude. Kasu horretan, legeak dio etxeak edateko urez hornitzeak beti izaten duela lehentasuna, inolako salbuespenik gabe.

Oro har, ur beharren kalkuluak gutxi gorabeherakoak izaten dira; gainera, kalkulu horiek betetzeari dagokionez horizonte desberdinak hartzen dira kontuan. Kalkulua egite-rakoan, espero den biztanleri hazkundera, instalazio industrialak eta nekazaritza-sailak hartzen dira oinarritzat. Era horretan, batezbesteko hornidurak biztanle bakoitzeko kalkulatzeko dira, leku bakoitzeko industria- eta/edo merkataritza-jarduera mailaren eta bertako biztanle kopuruaren arabera.

Nolanahi ere, badira kontuan hartzen ez diren parametro batzuk, hala nola kontsumo-ereduak, ohiturak, eraginkortasun mailak, ura berriz erabiltzeko eta aurrezteko praktikak eta bestelako batzuk. Horren eraginez, biztanle iraunkorrenzat kalkulatzeko den etxeko kontsumoa nahiko aldakorra da eta ez du zerikusi handirik gure gizartearen benetako beharrek.

Datu horrekin batera, gogoan izan behar dugu udaletako ur-banaketako sare gehienetan normaltzat jotzen diren ur galeren neurria, zeren horren eraginez bikoiztu egin behar izaten baita uraren hornidura (!). Hala, Euskadiko Prezioen Batzordearen iritziz -bera da uraren udal tasak onesteko eskumenak dituen-, "1992an, ura banatzeko sareek garratzen zuten ur osoaren %48a galtzen zen".

Kalitatearen arazoei dagokionez, arrazioak era askotakoak dira, baina gure bizimodua izaten da beti haien sustraia. Horniduraren eremuko beharrak asetzeko kezka nagusitu den garai berean, gure ibaiak hondakinak eta zaborrak botatzeko estoldak bezala erabili ditugu, ibarrak eta erriberak etengabe okupatzeaz batera.

"Ibai bat eta bere ibai adarrak adar ugari dituen eta arro (hidrografiko) izeneko lurralde bat estaltzen duen zuhaitz batekin aldera daiteke"

"Eginkizun horretan kontuan hartu behar diren puntuen artean Uren Legea dugu. Izan ere, beraren 40. artikuluko arretako Plan Hidrologikoen derrigorrezko edukiak aipatzen ditu"

Ibaietatik ura neurri handian ateratzearen eragina da gure ibaiak pairatzen duten kalterik handiena, kontrolik gabeko isurketen ostean. Ibaietako arroa emari gutxirekin uztea kaltegarria da uraren kalitateko eta bertako biztanle biologikoen bizirako. Gainera, oraindik ere ez ditugu benetan neurtu eragin horiek ekonomian, gizartean eta paisajearen egin dituzten kalteak.

Errealitateari begiratzeak hausnartzera eramaten gaitu. Ongizatearen gizartearen garapen ekonomikoa noraino iritsi den ikusita, garbi dago sistema naturaletan indarrez egindako aldaketak eta naturan egindako arpilaketa ziztu bizian doazela, eta, hortaz, ezinbestekoa dela gure errealitate hidrologiko naturala zein ote den pentsatzera gelditzea.

Ibaiek jarraitu behar dute itsasoraino iristen eta beraien urak ahalik eta egoera onenean eramaten, kantitate, erregimen eta kalitateari dagokienez. Orain arteko eredurik gabeko garapen ereduak kalte hau ekarri du. Bada garaia norabidea behingoz artezteko, gestio arduratsurantz abiatzeko.

5. Udalen eskumenak ur arloan. Udalen zerbitzu hidrikoak

Bai ur hornidura eta bai beraren arazketa udalen eskumenak dira, udalei buruzko oinarritzko legediaren arabera; gainera, udal erakundeek ekimenari soilik dagozkio. Beraz, autonomi erkidegoen legediek ezin ken diezaiekete eskumen hori udalei. Horrez gain, deszentralizazioa eta gestio administratiboa hiritarregana ahal bezainbeste hurbiltzea agintzen dituen printzipioa aplikatuz, udal administrazioa da gai horren inguruko eskumenak berez dituen maila legitimoa. Nahiz eta zerbitzu horietako batzuk udalen gaineratik egon, udal izaera horri eutsi behar diote.


Gaur egungo horniduraren ardatza udalek ura bilatzeko osatzen dituzten partzuergoak dira, edota, ura jadanik duten kasuetan, baliabide horren inguruan eratutako zerbitzu mankomunitateak. Horniduraz arduratzen diren erakunde

horietatik kanpo geratzen diren udalak baliabide propioak izaten dituztenak dira, normalean; nolahi ere, ezinbesteko azpiegiturak mantentzeko gastua gero eta gehiago hazten da udal horientzat. Gestio formula horiek bultzada nabarmena eman zioten hornidura-azpiegituren garapenari, hasieran; gero, berriz, abonatuaren kopurua handitzea eta hornidura sarea handitzea eta arto gehiagotara eramatea izan dira haien ardatzak.

Era horretan, euskal lurraldean zehar hainbat ur partzuergo finkatzeak zera ekarri du berekin udal askorentzat: eskualde mailako hornidurarako iturri zentralizatuekin lotzea, hau da, urtegiekin gehien-gehienetan; aldi berean, udalek nolabait baztertu dituzte uraren eremuan dituzten eskumen eta erantzukizun propioak, batez ere herri txiki eta ertainen kasuan, diru-baliabide urriak baitituzte.

Beste alde batetik, autonomia erkidegoak eta -gure kasuan- Foru Aldundiak udalek uraren eremuan dituzten eskumenetan zuzeneko eragina duten arauak onartzen ari dira, hainbat eskumen-titulu oinarritzat hartuz. Ingurugiroaren babesa, toki erregimena, osasuna, herri-lanak, etab., horiek guztiak autonomi erkidegoen eta Foru Aldundien jardura arautzailea ahalbidetzen duten tituluak dira.

Halaber, Autonomia Erkidegoek eskumen estatal batzuk bereganatzen dituzte, hornidura eta saneamendurekin zerikusia duten gaietan udalei laguntza emateko; eta Lurralde Historikoen legeak Foru Aldundien esku uzten ditu eskumen horiek; beraz, azken horiek udaletako azpiegitura hidraulikoen kanpo finantza-iturri nagusi bihurtzen dira, azpiegitura horiek arautu eta beraien funtsezko diseinuak egiteaz batera. Beste



alde batetik, partzuergo eta mankomunitate handiak dira euren azpiegituren gestioa (ubideak mantentzeko lanak, araztegiak eta hondakin-uren tratamendua) enpresa pribatuen esku uzten dutenak; horren bidez, zerbitzuak garestitu eta pribatizatzen dituzte, lanpostuen kalitatea hondatzen dute, etab.

Horrenbestez, udal izaera omen duen gestio zerbitzu horrek galdu egiten ditu Udalerriarekin zituen lotura guztiak. Udalari uzten zaion eginkizun bakarra udalaren gainteko erakundearen organoetan parte hartzea da. Hori guztia berriki onartu den Urari buruzko Arteztarau Markoan ezarritako printzipioen aurka doa, zeren bertan esatenenez, erabiltzaileen zuzeneko parte-hartzea eta uraren politikan gestio publikoa sartzeari funtsezko tresna baitira gardentasun handiagoa lortzeko.

6. Uraren gestioari buruzko gogoetak: eztabaidarako elementuak

- Baliabide hidrikoen gestioari buruzko edozein azterketak gestio-unitate bat hartu behar du kontuan uraren ziklo integralerako: arro hidrografiko naturala; azpiunitateak, berriz, bertan dauden sistema hidrologikoak izan behar dira.
- "Ur noblearen" iturri izan behar diren arro-buruek eta akuiferoen erreforma-guneek erabilera mugatua eta kontrolatua izan behar dute.
- Politika hidraulikoak orain arte egin dituen ahalegin handien xedea azpiegitura mailan dauden gabeziak zuzentzea izan da, bai ur hornidurari dagokionez eta bai hondakin-uren arazketari eta helmugari dagokienez. Orain arte, gabezia

baliabide horren eskaintzaren aldetik neurtu da, ez eskaeraren azterketatik. Egin diren planak obren beharra justifikatzera mugatu dira ia beti, nahiz eta plangintzak egin dituzten erakundeetan proposamen eztabaidatuak egon diren.

- Azpiegitura horietako batzuek eragin larriak izan dituzte ingurugiro mailan; gainera, urari lotutako ekosistemak zaintzeko eta/edo lehengoratzeko beharrak gero eta handiagoak dira. Horrenbestez, ezinbestekoa da ikerkuntza sakontzea eta ikuspegia integratzaileagoa izatea. Badirudi, baina, ikuspegi hori nekez lor daitekeela gaur egungo "kaleidoskopioarekin": planen artean badira desberdintasunak, eta esku hartzen duten administrazioak ere desberdinak dira (maila desberdinekoak dira).
- Gure edateko ur sistemen kalitatea bermatuta dagoela etengabe esaten badigute ere, ibaietatik hartzen diren urek badituzte zenbait gaitz: alde batetik, hiri eta/edo industriaren isurketak jasan dituzte; bestetik, herrietako edateko ur hornidurak desiragarria ez den nekazaritza-jarduera handia du bere inguruan. Kasu gehienetan ezezagunak dira gaur egungo edangarritasun sistemetan kontrolatzen ez diren gai ugariaren eragin epidemiologikoak.
- Itsasaldeko uren kalitatea gero eta txarragoa da, eta horrek kalte handiak ekartzen dizkio arrantzari. Egoera hori oso lotuta dago ibaiek itsasoratzen dituzten hondakinen kopuru eta baldintzekin.
- Arroetara edo lurpeko uretara iristen diren isurketa kutsagarrien kontrola nekez fiskaliza daiteke, eta gauza bera gertatzen da itsasaldeko isurketekin. Arazo hori konpondu nahi duten hiritar eta eragile sozialen inplikazioa ez da aski gaur egungo ikusketa eta kontrol sistemen ahuleziei aurre egiteko.
- Etorkizunari begira, lurraldearen plangintza bateragarria izan behar da plangintza hidrologikoarekin, zeren azken horrek gizakion jarduera guztiak baldintzatzen baititu.
- Uholdeak pairatzeko arriskuaren konponbideak ez du estrukturalista izan behar; aitzitik, lurraldearen antolamenduari

"Ibaietatik ura neurri handian ateratzearen eragina da gure ibaiek pairatzen duten kalterik handiena, kontrolik gabeko isurketen ostean"

"Bai ur hornidura eta bai beraren arazketa udalen eskumenak dira, udalei buruzko oinarrizko legediaren arabera; gainera, udal erakundeek ekimenari soilik dagozkio"

egon behar du lotuta, eta antolamendu horretarako ezinbestekoa da jabari publikoa definitzea. Jabari batzuk ibaiarenak dira, argi eta garbi, zeren beraien muga zehatzak ia urtero definitzen baitira ur-goraldien berezko uren bidez; jabari horiek modu desegokian okupatu direnean, dela nekazaritzarako, dela abeltzaintzarako, dela eraikuntzak egiteko edo beste edozein behin-behineko jarduerarako, orduan okupatzaile horiek alde egin behar dute, edo, bestela, arrisku egoeran daudela onartu.

- Gaur egun, plangintza hidrologikoa, ingurugiroarena eta ekonomikoa elkarretik bereiztuta daude, halako moldez non ur gehiago (baliabide gehiago) eskaintzen den bakoitzean gehiago bultzatzen den ura alferrik galtzen jarraitzeko politika, eraginkortasunaren bidetik jo beharrean eta kontsumo txikiagoko jarduerak/teknologiak sustatu beharrean.

- Euskal Herriko ibaien ekosistemaren suntsipena ikaragarria izan da eta bukatu gabe dago. Uholdeak jasan ditzaketen inguruneak okupatzea, erriberetako zuhaitzak moztea, ibien tarte luzeak kanalizatzea, meandroak moztea eta arroen norabidea aldatzea egunero gauzatzen diren praktikak dira, eta ibaialdeek kalitateari egiten dizkieten kalteak gero eta nabariagoak eta agerikoagoak dira. Praktika horiek ezin egin daitezke beraien ondorioen kostua ezagutu gabe, zeren oso eragin kaltegarriak baitituzte beste politika sektorial batzuetarako eta beste baliabide ekonomiko batzuetarako. Ezin uka daitezke ibaiak ekosistema oso dinamikoak eta bereziki sofistikatuak direla.

- Uraren gestioari buruzko kultura sustatzeko modu bat lehen eta bigarren mailako banaketa sarean galtzen den ura kontrolatzea da. Horren inguruko politika eraginkorrek urteko programa/ebaluazioa eskatzen du, galera horiek ezabatu ahal izateko.

- Baliabideen kontsumo razionalaren lehen betekizuna ura berriz erabiltzea da, ur edangarria behar ez duten erabileretan: berdeguneak ureztatzea, kaleak garbitzea edo industriara

doan uraren zati handi bat. Hori horrela izanik, arro hidrografiko bakoitzerako hondakin-ur araztuak berriz erabiltzeko plan bat egin behar da; gainera, gizarteak eta administrazioak gai izan behar dute plan hori ebaluatzeko eta sustatzeko. Kasu eta leku askotan ez du ahalbidetuko uraren zikloa ixtea.

- Ura aurrezteko planak ez dira errazionamendu planak; aitzitik, gaur egungo planeamendu ekonomikoaren funtsezko oinarria izan behar dute.

- Plangintza hidraulikoa modu egokian egiteko beharrezkoa da eskariaren ikuspuntutik planifikatzea, aldeztatik benetako behar hidraulikoak aztertuz, behar bakoitzaren arabera; horren ostean, berriz, eskari horiek betetzeko egon daitezkeen alternatibak aztertzearekin behar zaio.

- Ezinbestekoa da planteatzea Euskal Herriko jabari publiko hidraulikoaren gestioak eskumen-erakunde bakar bat eratzea eskatzen duela, administrazio mailan EAE eta Nafarroa barnean hartuko zuena, horren bidez hiritarrek kontzientzia handiagoa hartuko baitute euren ingurune hidraulikoa defendatzeko beharraz. Aldi berean, erakunde horrek talde sozial eta zientifikoekin batera lan egin behar du, gure ibai, akuifero eta itsasaldeetako gaitz kroniko batzuen sustraian dagoen utzikeria ezabatzeko. Lurraldearen arabera antolatu behar da, hau da, arroak gestio unitatetzat hartu behar dira; horietako bakoitzean talde eta bulego egokiak sortu behar dira, prestakuntza ona eta askotarikoa duten langileekin.

